

NORANTZA

Mikel Irizar Goienako bateratzailea

«Herri komunikabideek garrantzi izugarria dute»

Deba Garaiko euskara elkarteek eta komunikabideek sortua, maiatzaren 22an jaio zen Goiena Telebista. Aurrerantzean, gainera, komunikazioaren arlo guztiak jorrazteko asmoa dutela adierazi dute.

nalen korrespontsal izateko gai direla uste dugu. Izan ere, guk geuk inork baino hobeto ezagutzen dugure inguru.

tentzeko ona da. Azken finean, gure nortasunetik, iraganetik etorkizunera zer eramateko gai garen frogatzen datza gure erronka, horren funtsa, guretzat, hizkuntza delarik.

Euskara hutsez emititzen da. Zer ekartzen du horrek?

Gure helburua hasieratik, herri komunikabide hauen bitartez, euskararen aldeko apustua egitea izan da. Arestian aipatu dugun komunikazioen mundu zabal horretan gutaz eta gure hizkuntzaz hitz egingo duten mezu gutxi izango direla pentsatzen dugu. Hori dela eta, esparri horretan beste batzuei aurre hartzen badiegu, gutaz eta gure hizkuntzaz hitz egingo duten hedabideak izango dira eta hori hainbat ezauzgarri man-

Herri komunikabideen garrantzi asko mintzatzen da...

Bai. Izan ere, herri komunikabideek garrantzi izugarria dutela pentsatzen dugu. Mundu zabal, interkomunikatu eta interaktiboa hurbil dugun garai hauetan, nolabaiteko komunitate naturalak sortzea oso garrantzitsua da. Egun, mundu birtual horretan, komunitate birtualak sortzen ari dira eta, hauek txarrak ez badira ere, oreka bat lortzeko, komunitate naturalak, berezkoak eta oinarri soziala izango dutenak beharrezkoak dira. Zentzu horretan, herri komunikabideek eginkizun garrantzitsua betetzen dute, hiribileko komunikazioarekin nortasun kolektiboa gordez eta mantenduz.

Zeintzuk dira aurrera begira dituzuen asmoak?

Memento honetan Goiena telebista Arrasate, Aretxabaleta, Gatzaga, Eskornatza, Aramaio eta Bergarako zonalde batzuetan ikus daiteke. Hori dela eta, urte bukarrako eskualdeko gainontzeko herrietan ere ikusteko aukera izango dela espero dugu. Bestalde, prentsiari dagokionez, udazkenean eskualde mailako aldizkari bat kaleratzeko asmoa dugu. Horretaz gain, gainera, irratia, Interneteko zerbitzua eta eskualde mailako egunkari bat sortzeko ideiak aztertuz eta landuz joango gara. Izan ere, gure asmoa komunikazioaren arlo guztiak jorratzea da.

bat izateak?

Egiturari dagokionez, indarrean metaketa dela pentsatzen dut. Orain artean genituen hedabideak, uholde indartsu baten aurrean, arriskuan zeudela iruditzen zitzaigun eta, denok elkartzuz gero, trinkotasun bat lortuko genuela. Esaterako, eskualdean sortuko ditugun hedabideak hedabide nazio-

AMAIA MUNDIÑANO

Goienak, Komunikazio Zerbitzutarako Kooperatibak, bere lehenengo asmoari ekin dio dagokien eta Deba Garaian bertako telebistaz gozatzeko aukera paregabe eskaini die herritarrei.

Zein da Goiena Telebista sortzerakoan egin duzun hausnarketa?

Deba Garaian herri komunikabide ugari ditugu: sei aldizkari, bi telebista eta bi irrati. Zentzu horretan, komunikabideei dagokionez, oinarri sendo bat genduela ikusten genuen. Aurrera begira, ordea, euskarak behar duen eta merezi duen lekua izan dezan, orain arte egindakoa baino gehiago behar zela konturatu ginen. Izan ere, oso hurbil dugun etorkizunaren seinaleak, komunikabideak, sare bidez etorriko diren mezuak... ugaldutako egingo dira, eta egoera horretan gure maila mantentzeko eta igotzeko indartsuago eta trinkoago egon beharra genduela pentsatzen genuen. Hausnarketa hori oinarri, eskualde osoko hedapena izango luketen komunikabideen beharra zegoela erabaki genuen.

Zer-nolako abantailak eskaintzen ditu telebista bakar



Txillardegí

Ekainaren 7

Baina ez hemen, eta ez gaur, Kristianian dut gogo, gaurko Oslo; eta mende hasieran, 1905ean. Stokholm-en azkeneko jukutria: «konstituzionalismoa» (hitza ere hauxe zen). Alegia: Suedia/Norvegia batasun sakrosantua ikutu-ez-in bihurtzea. Oskar erregeak ez zuen horretara «separatismoa» lekarkeen ezer ere sinatu nahi.

Michelsen norvegiar buruzagiak, orduan, (Bergen-go armadore jatorriz, Bilboko Sotaren antzerka!), Norvegiako "Storting" (Parlamentua) bilerazi zuen.

Eta 1905ko Ekainaren 7an, erabaki bikotiza hartu zen bertan ahobatez: alde batetik, Suediako erregea tronogabetzea (eta Kristiania-ko tronurako errege bila hastea); eta, bestetik, Stokholmekiko Batasuna amaituztat eman, eta Norvegiaren Askatasuna aldarrikatu, eta kantzilergoetara adieraztea.

Suediak, erabat haserre, bere Harmada bidali zuen Kristiania aldera, eta mila espantu egin zuen. Baina ez zen indar militar erabiltzera deliberatu. Eta erdi isilka «negoziatzen» hasi zen.

Negoziatzearen puntu nagusia hau zen: herri-plebisizito bat Norvegiara antolatzea. Eta aurrerakoan sortuko ziren diferentziak, hamar urtez bederen, Hagako Gortearen eskutetan jartzea.

Eta Abuztuaren 13an gauzatu zen bozketak. Emaitzak ez zuen zalantza izirik utzi: 368.211 boto Suediagandik bereiztearen alde, eta 184 kontra.

Unionisten porrota aintzakoztat hartu zuen orduan Stokholmek, eta hara bidalitako gerla-ontziak etxera deitu zituen. Eta odof isurketarik batera gabe Norvegia Askatua sortu zen. Baina Eskandinavia Europa da.

Aitzindariak

JOÃO SALGADO
X V I I



A Nossa Liberdade desvaneceu-se. O Nosso Governo, pela mão de Patrícios, Passou para os Castelhanos, estrangeiros na Nossa Nação que como Sanguessugas sorveram o Nosso Sangue, roubaram as nossas Terras, e deram-nos a conhecer e a sentir a Tirania, fazendo-nos assim, seus servos...

ONTEM, OS bons pais da Nossa Patria que tentaram opôr-se com moderação a violência, foram enforcados a Traição, indefesos, abruptamente perante a força bruta e manhosa da potência degenerada. Agora vivemos conforme o Diktamen da nossa cobardia, a espera que amanhã venham os Castelhanos a Nossa procura para nos utilizarem...

E O mais importante, alguns da Nossa Nação, desfizeram-se em Elogios e Falácias para fazer com que nos calássemos e nos deixássemos de Tiranizar. E assim poder manter a sua posição como vermes que se alimentam do corpo morto que, quando vivo os querou, tornando-se instrumentos da nossa desgraça e dos nossos Trabalhos.

Oh antigos e generosos Bascos, cujas façanhas a expulsão da Nossa Patria as Potências inimigas: que cobardia é esta? Já é hora de despertar da vossa Letargia! As correntes com que a NARRA se apresenta sempre foram pronóstico das que hoje põe Castela: so dela tendes correntes.

AITZINA + MILAGRE + XAL + ZU + MILAGRE